

# elkar

UDA 2017  
48. ZENBAKIA  
[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)



*Bizitza ring moduan*

## JASONE OSORO

+

**DAVID TRUEBA**

Sobre las contradicciones del ser humano

**ELKAR SARIA 2017**

elkar Fundazioak Proiektuari eta Ibilbideari elkar sariak banatu ditu aurten

**IZEN PROPIOAK:**

Ane Gabarain · Juan Luis Zabala · Txani Rodríguez · Ana Malagon  
Eñaut Aiertzaguena · Sergio Pereira · Mikel Urdangarin · Miren Agur Meabe



# MURGILDU EUSKARAREN URETAN



Oscar Wilde  
Mamakak: Paul Caballero

DORIAN GRAYren erretratua

LECTURAS  
GRADUADAS  
IRAKURGAI  
MAILAKATUAK



# ARIAN

MÉTODO PARA APRENDER EUSKERA  
EUSKARA IKASTEKO METODOA

**elkar**  
*liburu-dendak*

**ALGORTA (GETXO)**  
Telletxe 11  
944 91 66 16

**BAIONA**  
Arsenal plaza  
559 5935 14

**BERGARA**  
Ibargarai 7  
943 7640 50

**Iparragirre 26**  
944 24 02 28

**DONOSTIA**  
Fermín Calbetón 21  
943 42 00 80

**Bergara 6**  
943 42 63 50

**Araiztarrak 1**  
Campus  
943 63 17 26

**IRUN**  
Colon pasealekua 8  
948 1755 38

**ARRASATE**  
Erdikokale 14  
943 79 78 29

**BASAURI**  
Dr. Jose Garai 11  
944 26 13 84

**BILBO**  
Licenciado Poza 14  
944 43 47 08

**Zamudioko**  
ataria Zazpikale  
944 16 14 50

**GASTEIZ**  
Fermín Calbetón 30  
943 42 26 96

**HERNANI**  
San Prudencio 7  
945 14 45 01

**IRUÑEA**  
Comedias 14  
948 22 41 67

**Larraona z/g**  
Golem eraikina  
948 1755 38

**TOLOSA**  
Arostegieta z/g  
943 6735 33

**elkar** *Hizkuntzak*  
[www.elkarhizkuntzak.eus](http://www.elkarhizkuntzak.eus)

# ELKAR FUNDAZIOA, ATZO, GAUR eta BIHAR

Orrialde hau elkar Fundazioak egiten dituen eta plazaratu nahi dituen egitasmo eta gogoeten berri emateko baliatuko dugu aurrerantzean. Lehen aldi honetan azalduko dugu zer den, zertarako sortu zen eta zertan diharduen.

elkar Fundazioa 1996an eratu zen, ordura arte garatutako elkar proiektuaren barruan antolatutako enpresa taldeari txapela jarriz, ziurtatzeko euskara zein euskal kulturaren sustapenerako sortutako egiturak etorkizunean misio berari eutsiko diola.

1996 arte elkar Taldea osatzen zuten enpresak zenbait akzionista partikularren esku zeuden. Etorkizuna bermatzeko asmoz, urte hartan akzionista hauek beren borondatez sorreratik egiten zuten praktika ziurtatzeko, Fundazioa sortu zuten. Etorkizunean ere Talde osoko etekinak euskara eta euskal kulturaren sustapenerako izatea erabaki zen, horretarako euren ondasunak betiko Fundazioaren esku utziz.

Taldeko enpresak Fundazioarenak izanik, ziuratuta dago sortzen diren baliabideak berriro ere euskara eta euskal kulturaren sustapenerako erabiliko direla. Horixe izan da gaur egun ezagutzen den elkar Taldea posible egin duen bide bakarra, kultur industria sendo eta autonomo bat sortzeko helburuarekin, eki-men, produkzio eta lanpostuak bermatuz.

Bere ibilbidean, elkar-ek liburuaren sektorean koka daitezkeen eremu guztiak bildu dituen egituraren alde egin du, argitaletxeak, banaketa eta liburu-dendak. Egitura sendo eta

integral bat izateak egin du posible hazten joatea eta euskal kulturaren zabalkunde eta ikusgarritasunerako ezinbesteko den kultur industria egituratzen joatea (zorionez, ez barkerria baina bai ezinbestekoetako bat).

elkar sortu zeneko izpiritua berarekin jarraitzen du, beraz, gaur egun, elkar Fundazioak: euskara eta euskal kultura sustatzeko misioarekin; liburuaren munduan zentratuta, baina euskal kulturaren gainerako beharrak ahaztu gabe; eta sortzeko gai den baliabideak berriro ere euskal kulturan inbertituz. Euskal kulturaren beharrek oraindik ere handiak izaten jarraitzen dutenez, duela 40-50 urteko ikuspegiak bizirik darrail.

## SARI ETA BEKAK

Beste batzuen lan eta proiektuak laguntzeko asmoz, Proiektuari elkar saria eratu du euskal kulturgintzako proiektuak gauzatzen laguntzeko, eta Joseba Jaka beka berriro martxan jarri, sortzaileei eskaintza. Funtzio berarekin hartzen du parte elkarlanean antolatzen diren beste hainbat beka eta saritan, hainbat udal eta era-gilerekin:

- **IGARTZA**
- **TENE MUJIKA**
- **AGUSTIN ZUBIKARAI**
- **JOKIN ZAITEGI**
- **MIKEL ZARATE**
- **MARTIN UGALDE**

## ELKARLANA

Gaur egun, elkar Fundazioaren barruan dauden enpresen artean, argitaletxeak, inpresio zentroa, banaketa enpresak eta liburu-dendak daude. Horiekin batera, hainbat eta hainbat eragilerekin batera ari da elkar Fundazioa elkarlanean, euskal kulturaren beharretatik abiatuta sortzen diren ekimenak gauzatu nahian. Besteak beste:

- **IKASTOLEN ELKARTEA (EHIK)**
- **BERRIA**
- **GRÁFICAS LIZARRA**
- **GARA**
- **NOTICIAS TALDEA**
- **EUSKALTEL**
- **BAINET**
- **KATXIPORRETA**
- **LOTURA FILMS**

Hauek dira proietu horietako batzuk:

- **IKASELKAR,**  
ikas-materialgintzarako argitaletxea
- **MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA,**  
kulturgileentzako azpiegitura
- **HAMAIIKA TELEBISTA**
- **IRRIEN LAGUNAK,**  
haurrei eskainitako hedabidea
- **LUR ETA AMETS,**  
Euskal Herriaren historia euskaran  
haurrei erakusteko ekimena
- **KONTSEILUA,**  
euskalgintzako eragileen artean eratua

*La Fundación elkar nació en 1996 para culminar la labor del grupo de empresas creado dentro del proyecto y el espíritu elkar, entonces en manos de varios accionistas particulares, con*

*el fin de garantizar que las estructuras creadas para el desarrollo del euskera y la cultura vasca continuarán con la misma misión. La Fundación ha trabajado y sigue trabajando en colaboración*

*con numerosos agentes culturales en el desarrollo de diferentes proyectos necesarios para la cultura vasca, y al mismo tiempo participa en la organización de varios premios y becas.*



# JASONE OSORO

*“Boxeoan bezala,  
kolpeak jasotzean  
zutitza da bizitza”*

AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: LANDER GARRO

**Boxeo, muturrak txikitzeko kirola baino gehiago, bizi jarrera da, eta horixe bera izango du ardatz Jasone Osororen bilduma berriak. Eskularru beltzak izenburupean eta hainbat liburukitan barrena, sei pertsonaia nagusi deskubrituko ditugu apurka, haien ahuleziak eta kemenak, gaitasunak eta ezinak, txanpon beraren aldeak balira bezala. Urtean bi liburuki plazaratzeko konpromisoa hartu du egileak. Lehenak bildumaren izenburu bera darama.**



ESKULARRU  
BELTZAK  
Jasone Osoro  
ELKAR



**Bizitza zer den, boxeoaren bidez azal litekeela diozu. Nolatan heldu diozu boxeoari?**

Ezekiel-en eta Jara-n ez bezala, mezu bat helarazi nahi nuen oraingoan. Hasiera-hasieratik bilduma gisa abiatu denez, istorioaz gainera beste heldulekurik ere behar nuela iruditzen zitzaidan, gaztaroari lotutako zerbait-edo. Gogora etorri zitzaidan gaztetan askotan izaten dela beldurra, edo ahal sentitzen zarela, tokiz kanpo, zeure lekua egin beharrean, eta talde bateko kide sentitu nahirik, batzuetan ez zaituztela onartzen, eta beste batzuetan, berriz, zeu zarela zeure burua ondo kokatuta ikusten ez duena. Bullinga, harrera etxeetan bizi den gaztea, badago hitz-totela den neska bat... Gai horiei heldu nahi nien, modu entretenigarrian, eta horri zelofana jarriko zionaren bila nenbilela, bat-batean boxeo etorri zitzaidan burura.

Ez naiz sekula boxezalea izan, kontrakoak, arbuiatu ere egin izan dut, bortxari lotuta ikusi dudalako, baina oso bestelakoak ere bada. Bizitza ring moduko bat da, eta boxeo ez da kolpeak ematea, hori ere baden arren; kolpeak jasotzean zutitza eta jarraitza da boxeoa.

Zentzu horretan, oso metafora interesarria iruditu zi-tzaidan. Bestalde, oso gutxitau aipatzen den kirola da. Beharbada polemikoa izan liteke batzuentzat.

**Muhammad Aliren irakaspenak neskei zuzenduta datoz lehen liburukan. Zein dute onura?**

Boxeo gustuko ez duenak ere badu Muhammad Aliren berri, mundu guztiaq ezagutzen du. Pertsona benetan osoa dela iruditzen zait, eta gazteentzat erakargarria, kiroletik harago zegoelako. Beldurak gainditzeko tresnatztat zeukan boxeo. Bera jaio zen garaian, bere testuinguruan, gazteek delinkuentziara jotzea zen ohikoena. Hain zuzen, patu horri ihes egiteko heldu zion boxeoari. Kontraesana dirudi: borrokatu behar ez izateko, borrokara jo. Dislexikoa zen, baina oso azkarra, umore handikoa, eta poesia gustatzen zitzaison, idatzi ere egin zuen. Oso mezu indartsuak eman zituen, auto-laguntzarako balio handia daukaten esaldiak, benetan borobilak, “Ezinezkoa” hitza ez da existitzen, iritzi bat da” bezalakoak. Entrenatzea sufrimendua zela esaten zuen, ez

zuela ongi pasatzen, baina beharrezko zela bizitzan txapeldun izateko.

Muhammad Alik gauza mordoa egin zuen, baina askorrentzat beltza zen, ez besterik. Neskoia ere beste horrenbeste gerta dakiguke. Mila gauza egin ditzakezu, baina beti izango zara hori gehi neska. Izena eta erlilioa aldaltuta, bere figura berrasmatu zuen, berak nahi zuena, eskubideen aldekoak, gerren kontrakoak. Vietnamera joateari uko egiteagatik boxeorako lizentzia kendu zioten. Ringean ez ezik, bizitzan ere gogor borrokatu zuen, bere helburu eta ideien defentsan. Zentzu horretan, bade eredu bat.

**Zure pertsonaiek itxura bat daukate kanpotik, eta barrendik bestelakoak dira. Oro har, erretrotu simpleegiak egiten ote zaizkie gazteei?**

Denok dauzkagu azalak, pluralean, eta horietariko bakoitzak jokamolde bat erakusten du. Gure baldintzek eraikitzen dute geure izaera. Hein batean programatuta gatoz, baina ez gara robotak eta programatu zaigun hori biziaren arabera joango zaigu aldatzen. Lehen libu-



**“Muhammad Alik  
gauza mordoa egin  
zuen, baina askorentzat  
beltza zen, ez besterik.  
Neskoi ere beste  
horrenbeste gerta  
dakiguke. Mila  
gauza egin ditzakezu,  
baina beti izango zara  
hori gehi neska”**

rukian batez ere bi pertsonaia marraztu ditut, Baba eta Beire, baina zirriborroak dira. Azaletik nolakoak diren esplikatzen da, nola jokatzen duten taldean. Familiar nolakoak diren eta zergatik, aurrerago ikusiko da. Izan ere, bildumak horretarako aukera ematen dizu. Pertsonaia bakoitza mimatzea eta aberastea ahalbidetzen dizu.

**“Erortzeak ez du ezer txarrik, garrantzitsuena  
berriz altxatzea da”** dio, hain zuzen, hondo jo  
duen pertsonaia batek. Eta teorian denok bat

**gatozen arren, porrotaren eta lotsaren ezau-garritzat jotzen dugu praktikan, batik bat norberari gertatzen zaionean. Gomendiorik?**

Mohamed Alik esaten zuen legez, pentsatzen duzuna zenbat eta gehiago errepikatu, orduan eta gehiago sinesten duzu, eta sinesten baduzu, lortzen duzu. Mezu positiboak behar ditugu, baina, zoritzarrez, gehien errepikatzen zaizkigun mezuak negatiboak dira. Badirudi perfektuak izan behar garela, gauzak ondo besterik ezin direla egin. Geure buruari beldurra izatea ukatzen diogu, edo imperfektu izatea, lotsagarri gelditzea, gai jakin baten gainean “ez dakit” erantzutea... baina denok ditugu beldurak, denok gara ezjakinak, ahulak. Eroriz ikasten da ibiltzen.

**Beraz, lotsagari sentitzen garenean, zer esan behar diogu geure buruari?**

Eta zer!

**GARBIÑE UBEDA GOIKOETXEA**  
Idazlea

**Juan M. Velázquez, el autor de las celebradas novelas ALGO QUE NUNCA DEBÍO PASAR y HOMBRES SIN SUERTE, escribe las confesiones del conocido como el Número Uno del famoso asalto al Banco Central de Barcelona, en mayo de 1981.**

## **SEGUNDA EDICIÓN**

**Una lectura que no te debes perder**

La verdad de José Juan Martínez Gómez, el más conocido de los atracadores de bancos en España. Una historia impresionante, que nos hace reír y reflexionar sobre la vida y el destino, narrada con un estilo bello y fluido por el escritor Juan M. Velázquez.

M  
ediciones  
Colección TESTIMONIO

IMPRESCINDIBLE



**ANE GABARAIN**  
Actriz

## Proposamena

# EL RUIDO DEL TIEMPO

En 1936, en plena época del "Gran Terror", Stalin asiste a una representación de la ópera *Lady Macbeth en Mtsensk de Dimitri Shostakovich* (San Petersburgo, 1906-Moscú, 1975) en el Teatro Bolshoi de Moscú. Antes de que la función acabe, Stalin abandona el teatro. A los pocos días, el periódico *Pravda*, publica una demoleadora crítica acusando al músico de "desviacionista". El terror está sembrado. El músico debe elegir y elige la supervivencia. No tiene vocación de héroe. Su personalidad es la de un hombre introverso, miedoso, "La línea de la cobardía era la única que avanzaba recta y segura en su vida" nos dice el autor. Es un artista humano, y como tal no podemos sino comprenderlo a través de su monólogo interior,

lleno de contradicción y culpa, sin que falte su dosis de fina ironía. Y por supuesto, por encima de todo, la música. "Cuando todo lo demás fallaba, se aferraba a esta; a que la buena música sería siempre buena música, y que la gran música era inexpugnable." La novela se compone de tres capítulos principales. En el primero, "En el rellano", se nos presenta a un joven Shostakovich, que en estado de terror, aguarda cada noche frente al ascensor a que la detención o el tiro en la nuca se cumpla, pensando a veces que la muerte era preferible a un terror interminable. Y acabará vendiendo su alma al diablo, al régimen totalitario. En el capítulo central "En el avión", Shostakovich es enviado a Nueva York como embajador del arte soviético.

Es ya un hombre degradado, admirado por unos y despreciado por otros. Pero es el último capítulo "En el coche", el más conmovedor. En la última etapa de su vida, goza de los favores del estado, reconocimiento y honores. Se siente un hombre que ya ha vivido demasiado y ve su vida como una farsa, despreciándose profundamente por ello. Pero a pesar de todo, la música, siempre la música. "El arte es el susurro que se oye por encima del ruido del tiempo" dice Barnes. Esta es una novela biográfica, hermosa y terrible, que conmueve por la gran humanidad de su protagonista, y nos hace reflexionar sobre la difícil relación entre el arte y el poder.



**EL RUIDO  
DEL TIEMPO**  
Julian Barnes  
(Leicester, 1946)  
ANAGRAMA

## Profilak ESTEPEAN URKIAGA, LAUAXETA

### LAUAXETA, POESIA FUSILATUA



**JUAN LUIS ZABALA**  
Kazetaria

Duela 80 urte fusilatu zuten frankistek, 1937ko ekainaren 25ean, Gasteizen, Estepan Urkiaga Lauaxeta (Laukiz, Bizkaia, 1905-Gasteiz, 1937). Indar sinboliko handia du fusilamendu horrek. Batez, Lauaxeta, artean 32 urte bete gabea, euskal literaturaren eta euskal kulturaren garaiko Pizkundearen protagonista nagusietako bat zelako; bestetik, fusilatu aurretik eta fusilatuko zutela jakinik, Lauaxetak dramatismo handiko testuak idatzi zituelako espetxeen, bere sinesmen nagusiei —Jainko eta aberria— amaierara arte tinko eutsi ziela erakusten dutenak.

Lauaxeta baino hamar hilabete lehenago, beste poeta bat fusilatu zuten frankistek: Federico García Lorca. Lauaxetaren eredu nagusietako bat zen García Lorca, eta Lauaxetaren poema batzuetan agerikoa da haren eragina. García Lorca-ren fusilamendua areagotu egiten du Lauaxetaren fusilamenduaren indar sinbolikoa. Bizi zelarik, *Bide barrijak* (1931) eta *Arrats beran* (1935) poema liburuak ar-gitaratu zituen Lauaxetak. Herri hizkera-



ri eta tradizioari uko egin gabe, euskal poesiagintzara garaiko poesia aurreratuenaren oihartzunak ekartzen ahalegindu zen, ausardia handiz. "Ofizioko lehen idazlea dugu", dio Koldo Izagirrek Lauaxetari buruz, XX. Mendeko poesia Kaierak bilduman apailatu zuen Lauaxetaren antologiareen sarreran (Susa, 2001). "Europako lankideen duintasun literario berdinean bizi dena. Euskarak euskaldun mundutarra elikatzen du estreinakoz Lauaxetari esker".

Izagirrek apailatutako antología horrek Lauaxetaren oinarrizko lana ezagutzeko aukera ematen du. Ezagutza osoago baterako, Jon Kortazarrek apailatutako Lauaxetaren *Olerkiak* liburu da gomediarri (Erein, 1985), egilearen obra osoaren edizio kritikoa. Lauaxetaren poesiarekin gozatzeko ezinbesteko beste gomedio bat Anton Valverderen *Lauaxeta* diskoarena da (Herri Gogoa, 1978). 40 urtetik gorako ahanzturaren ondoren, Lauaxetaren oroitzapen eta poema fusilatuak berreskuratzen hasteko urrats erabakigarria izan zen Valverderen lan bikaina.

**MuGa - mugan**

## AFORISMOEN LEGEA, LABURREAN LUZE ESATEA

Pentsamenduaren flash bat da aforismoa, tesela bat, bizitzaren misterioetako bat laburbiltzen duen suspirioa



ANJEL LERTXUNDI IDAZLEA

Muga. Elkarren ondoan dauden bi errealtate edo gehiago bereizten dituen irudizko marra. Aforismoak, adibidez. Hitz gutxirekin hedadura handiko kontu sakona laburbiltzeko, laburrean luze esateko ahalegina. Helburua filosofikoa izan arren, hizkera poetikoa baliatzen duen genero literarioa.

Aforismoaren euskarazko lehen aipamen idatzia Sarako Etxeberrik egina da, eta Axular bedeinkatzen du aforismoen egile gisa. Hipokratesekin konparatzen du: medikuen medikuak gorputzaren inguruko jakituria zabaldu bazuen aforismoen bidez, Axularrek gauza bera egin omen zuen "arimako gauzei ukitzen zaizkien aforismoen". Bi bideetik da Axular euskal aforismoen aita: itzulpenarenetik, klasikoen hainbat aforismo ekarriz (Senecak, Tazito, San Agustin...), eta sorkuntzatik, aforismo eder propioak asmatuz, idazkuntzak nolakoa behar lukeen izan laburbiltzeko balio duen perla distiratsua lekuo: "[Idatzi behar da] ez zail, baizik erraz. Ez itxi, baizik zabal. Ez pisu, baizik arin eta atsegin".

Axularrek merezia zuen Geroren orriean zehar han-hemen ageri diren aforismo aparten entresaka bat. Patxi Salaberrik hartu zuen lan hori "Haizkora zuhaitzaren erroari kheinatzean: Axularren gogoetak eta erranak" (2000, Pamiela) izeneko liburuarekin. Txalotzeakoa litzateke entresaka-lan bera egitea Koldo Mitxelena, Gabriel Aresti edo Xabier Lizardi bezalako autoreen testuetan ere: erreferentzia kulturalen altxor ederrik jasoko genuke, gaztelaniazko Edhsa argitaletxeko "Aforismos" sailkoak bezalako liburuxkekin (besteak beste, irakurleak Lichtenberg, Seneka, Maria Zambrano edo Miguel Torgaren aforismo-bildumak aurki ditzake katalogoa).

Aforismoa pentsamenduaren flash bat da, mosaiko bat-eko tesela, "miniatura monumentala" (Aleksandar Baljak), "penalti bat" (Karlos Linazasoro), bizitzaren misterioetako-ren bat laburbiltzen duen suspirioa. Mikro-ipuinen feno-menoarekin lotu daiteke. Topikoa bihurtu da aforismoen oihartzuna Twitterreko testu laburren eraginarekin lotzea ere, baina aspalditik dator aforismoaren arrakasta. Horra iragan mendeko azken urteetan E. M. Cioranen aforismoek izan zuten ospea, haren testu laburrek jariatzen zuten nihi-



ILUSTRAZIOA: ANTON OLARIAGA

lismo muturrekoarekin lortua: "Hiltzeko irrika izan zen nire kezka bakarra; hiltzeko irrikari men eginez, beste guztiarri egin nion uko, heriotzari berari ere barne". (*Garrazta-sunaren silogismoak*, Tusquets, 1990).

Filosofiarekin lotu izan da aforismoa, baina pentsamendua paradoxaren poetikotasunarekin uztartzen denean eman ditu aforismoak momentu gorenak. José Bergamínek zioena da giltzarria: "Hitz bat gehiago ez: aforismo perfektua".

Geurera etorri, aipagarria da Juan Kruz Igerabideren ibilbidea aforismoen bidexkan (*Herrenaren arrastoan* eta

*Egia hezur, Alberdania*). Berari esker ikasi genuen: "Bakardadea ez da bakarrik etortzen". Halatsu da aipagarri Karlos Linazasororen ibilbidea ere aforismo-egile gisa (*Esan gabe doaz, Utriusque Vasconiae, Alferrikez balitz*, Elkar). Idazle tolosarrari ikasi genion zenbat balio duen hutsaren hurrengoa: "Daukazunarekin baino, kontua gehiago da kentzen dizutenarekin bizitzen ikastea".


Aforismoa inteligentziaren emaitza da, hitzetan eman-dako sententzia labur bat. Baina ez da hori bakarrik. Aforismoa sentiberatasunaren emaitza da, bat-bateko argitxinparta baten efektua. Aforismo on bat edertasunaren emaitza da ororen gainetik.

# Fotogramas literarios

"El cine... ese invento del demonio", dijo Antonio Machado. Y lo cierto es que a escritores como Truman Capote, Stephen King o Javier Marías las adaptaciones cinematográficas de sus obras les han

proporcionado más de un quebradero de cabeza. Sin embargo, en general, la relación entre cine y literatura muestra la cordialidad de los viejos camaradas. En este sentido, la literatura vasca no es una excepción. El último, y sonado, ejemplo de este trasvase entre el mundo de las letras y la gran pantalla es *El guardián invisible*, una adaptación del libro homónimo de Dolores Redondo. El bilbaíno Fernando Marías también dio luz verde para llevar sus obras *Invasor* y *La luz prodigiosa* a la gran pantalla. Pero la lista es larga y no podemos olvidarnos de tres importantes mediometrajes que se rodaron para la televisión en la década de los 80: *Ehun Metro*, de Ramón Saizarbitoria, adaptada por Alfonso Ugalde; *Zergatik Panpox*, de Arantxa Urretabizkaia, convertida en película por Xabier Elorriaga; y *Hamaseigarrenean, aidanez*, de Anjel Lertxundi. El de Orio volvería a vincularse al cine cuando, en 2009, Jabi Elortegi dirigió *Zorion perfektua*.

El caso de Bernardo Atxaga es muy reseñable ya que varios de sus libros han sido convertidos en película. *Obaba* fue adaptada por Montxo Armendáriz; *Bi anai*, por Imanol Rayo; y *Zeru horiek*, por Aizpea Goenaga. Pero la lista es larga: en 1996 Ernesto Tellería estrenó *Menos que cero*, basada en la novela *110. Street-eko geltokia*, de Iñaki Zabaleta. La divertidísima *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, de Joxean Sagastizabal, tuvo versión cinematográfica a cargo de Mireia Gabilondo y Fernando Bernués. Precisamente, el nombre de Gabilondo vuelve a aparecer si echamos un vistazo a las adaptaciones más recientes. Ella fue la encargada de llevar a la gran pantalla la novela *Amaren eskuak*, escrita por Karmele Jaio. *Un Tranvía en SP*, firmado por Unai Elorriaga, se exhibió con el título *Un poco de chocolate* y bajo la dirección de Aitzol Aramaio. El desaparecido director ondarrutarra convirtió también un relato de Roberto Mossó en el aclamado corto *Terminal*.



**UN VIAJANTE**  
Alejandro Fernández Aldasoro

Disponible para  
libbuk

## *Un viajante*

A esta nómina no exhaustiva se suma ahora Alejandro Fernández Aldasoro, cuya novela *Un viajante* se convertirá en cortometraje. La historia está protagonizada por Lucio Egaña, un representante de sastrería en el Bilbao de finales de los años 70. Dedicado a un nego-

cio en decadencia, Lucio viaja con unas maletas que pesan demasiado, conduce por carreteras heladas y duerme en pensiones. Trabaja mucho, pero no es suficiente. *Un viajante* llegó de forma casual a las manos del realizador Jon Ander Tomás, un bilbaíno hijo de

sastre, curiosamente. A pesar de su juventud, Tomás tiene una sólida trayectoria que le ha llevado, entre otros muchos festivales, a la Berlinale. Está previsto que esta adaptación, protagonizada por Sara Rivero e Ilay Kulerovic, se estrene después del verano.

**TXANI RODRÍGUEZ**  
Escritora



Nueva entrega de la serie del comisario Brunetti, que investiga por primera vez un crimen contra el medio ambiente.

# DONNA LEON

## Restos mortales

Quien destruye la naturaleza se destruye a sí mismo.


**“Ez nuen nire burua  
ikusi nahi mikroipuinak  
bakarrik idazten dituen  
norbaitek bezala”**

# ANA MALAGON



ARGAZKIA: JUANTXO EGAÑA

Egunerokotasunaren sinesgarritasunarekin jolasten duten narrazioak  
josten ditu Ana Malagonek. *Gelditu zaitezte gurekin* da bere bigarren liburua.



## GELDITU ZAITEZTE GUREKIN

Ana Malagon  
ELKAR



### Gelditu zaitezte gurekin irekitzera goaz...

Bizitza modernoaren konplikazioen inguruko hamalau narrazio dira. Zaintza eta leialtasuna, gai nagusiak diren arren, beste hainbat elementuen artean dauden haria direla ulertu behar da. Azken batean, hori da narrazio liburuek dutena; posible da hainbat gai errepikatzea.

### Haria sortzen duten errepikapenetaz ari garela, bada ipuin guztietan erdi ezkutuan ageri den elementu bat: telebista.

Asko interesatzen zait pop kultura eta leialtasunaren eta fidelitasunaren inguruan bueltaka hasi nintzenean pentsatu nuen: "Zeinek eskatu digu inork baino gehiago, bere manifestazio guztietan, fidelitasuna? Bada, telebistak!" Iragarkietara joan aurretik, nahiz eta saioa gustuko ez izan, aurkezle guztiek esan digute: "Gelditu zaitezte gurekin". Ideia hori dago ipuinen atzean ere; nahiz eta bizitza zenbaitetan ez gustatu gelditu zaitezte gurekin.

### Ipuinen egiturak izan dezake ikus-entzunezkoe- kin lotura: orainaldian eta lehenengo pertsonan idatzita daude kamera subjektiboa bailitzan.

Bai, baina, batzuetan lehenengo pertsona tranposoak dira. Iza ere, badira oso importanteak diren bigarren mailako pertsonaiak. Dena jorratzen da narratzailearen ikuspegitik, irakurlea narratzailearen zapatetan jartzen baita. Baino

pisu handia daukate beste pertsonaia batzuk euren istorioak kontatzen baititu narratzaileak.

### Zergatik erabaki duzu ipuin luzeak egitea?

Alde batetik, ez nuen nire burua ikusi nahi mikro ipuinak bakarrik idazten dituen norbaitek bezala. Nire buruari erronka jarri nion. Egia da azken urteetan erosu ibili nai-zela formatu laburrean idazten, baina kontatu nahi ni-tuent istorioek zerbaite zabalagoa eskatzen zidaten.

### Sorkuntza prozesuari dagokionez, zein da mikro ipuinak eta ipuin luzeak idaztearen arteko aldea?

Igande arratsaldetako idazlea naizela esan ohi dut, baina ez dut nire burua idazletzat hartzen. Igande arratsaldeak mikro ipuina idazteko ematen du, ordea, ipuin luzeagoak idazteko ez. Geruzetan idatzi dut, berridakatetik egin ditut, kapak gehitu eta kendu ditut, hau da, sakontasunarekin jolastu dut, eta lehen liburuarekin alderatuta bestelako prozesua izan da.

Mikro ipuinek, nahiz eta ondo mamitutako pentsamendua duten atzean, lotura handiagoa daukate bapatekotasunarekin. Espazio txikian handitasuna sartu behar duzu, formatu luzeetan baino mugatuago zaude eta hobeto funtzionatzen dute sorpresa elementuek baita ondo lotuta izateak nola hasi eta bukatzen dutun errelatua.

### Izan al da bereziki zaindu duzun zerbaite?

Pertsonaiek berezkoak ez diren kontraesanak izan ez zitzaten. Ez nuen nahi kontraesanak nire hanka sartzeak izatea, baizik eta, gizaki beraren kontraesanak izan zitezela.


### Zerekin gozatu duzu?

Atmosferak sortzen gozatu dut, baita pertsonaiak erakitzeten eta horiek ulertzen. Idaztea ez da nire barneak askatzea eta hustutzea, baizik eta aukera ematen dit astelehenetik ostiralerako pentsatu ezin ditudan gauzetan pentsatzeko. Aberasgarria da hausnarketa modu hori.

LEIRE PALACIOS  
Kazetaria

# EL THRILLER LITERARIO QUE REVOLUCIONARÁ 2017

No devorarás este libro:  
este libro te devorará a ti



ALFAGUARA

Penguin  
Random House  
Grupo Editorial

[www.megustaleer.com](http://www.megustaleer.com)

Disponible  
en **ebook**

Siguenos en:





EÑAUT AIERTZAGUENA

## LASTER liburu-dendan...

Elkar argitaletxeak uda ondoren helduentzat kaleratuko dituen liburuen artean honakoak aipa daitezke: *Euskal Herri itsastarra San Juan baleontzikitik* (euskaraz eta gaztelera), **Nikoz Kazantzakis** eta **Luis Berriozábal**aren *Alexis Zorbaren hitzak eta egintzak* eta **Jon Ariza de Miguel**en *Haizeari begira*. Eta **Jakin** eta **Berriarekin** elkarlanean, Aleka bildumako liburu berria, AEB, *nola iritsi da Trump presidente izatera?*

En septiembre **Ken Follett** publicará su nuevo libro *Una columna de fuego*, de la mano de **Plaza & Janés**.

*La verdad alternativa, 30 mentiras sobre el bombardeo de Gernika* de **Xabier Irujo**, la traducción al castellano de *Mejor me callo* de **Garbiñe Ubeda**, *Lobos de nuestro escudo* de **Pedro Zarzabeitia** o *Bajo las cenizas de la Navarrería* de **Begoña Pro** son algunas de las novedades que anuncia la editorial

**Txertoa** para después del verano.

**Susa** argitaletxeak *Uxue Alberdi, Xabier Montoia eta Harkaitz Canoren nobela bana* iragarri ditu. Baita *Arantxa Iturberen ipuin bilduma* eta *Gotzon Barandiaranen Hitzen ahairea* bilduma ere.

**Alfaguara** prevé publicar este verano *La posibilidad de una isla*, de **Michel Houellebecq**.

**Txalapartak** bestalde, **Iñaki Egaña**

historialariaren *ETAREN historia laburra* kaleratuko du.

**Random House** anuncia la próxima publicación de *L. A. Confidencial*, de **James Ellroy**.

**Pamielak** hurrengo hilabetetan argitaratuko ditu **Juan Martín Elexpururen Euskeraren aztarnak Sardinian?**, **Juan Kruz Igerabideren Labur txintan** aforismo bilduma eta **Jon Iñaki Lasaren Bidaiaik** poesia lana.

**La editorial Planeta** prevé publicar *La sociedad que seremos de Belén Barreiro* y *La librería de Michelle de Verónica Fernández*.

Haur literaturan hurrengo hilabetetan **Tartatalon** helduko diren batzuk: *Aitak esan dit*, *O! soinuak egiten dituen Hervé Tulleten liburua*, *Non bizi da untxia, Pintto eta rock-a, Lerro-leerro eta Egipotomania*. **Elkar argitaletxeak** bestalde, *Tapper bikiak 3* iragarri du.

Gure liburu-dendetan  
behar duzun erreminta bakarra



**elkar**  
**TXARTELA**






# EUSKAL HERRIKO ETXEA



Maketa ebakigarriak



Eskulanak egiteko zaletasuna gero eta zabalduago dago adin guztietako pertsonen artean. Eskaintza zabala da gaur egun liburu-dendetan nahiz sarean: egin daitezke apalategiak komuneko paperaren biribilkiekin, sandaliak oihalak erabiliz, sakelako telefono edo ordeñagailu eramangarrientzako zorroak edozein txatalarekin, mahaiaik eta sofa paletekin, lanparak beirazko ontziekin edo arrautza-ontziekin, jostailuak plastikozko botilekin, eta abar luze bat.

Sarean era guztietako tutorialak daude erakusten duten arropa nola berrerabili eta personalizatu, etxeko garbiketa produktu naturalak nola egin edota gure autoetako gurpil zaharrekin apaingarriak nola sortu.

Aipaturiko berritisun horiek guziak gorabehera, maketas egitea zaletu askoren denbora-pasa izan da aspaldi eta da oraindik ere. Eta hain justu *Euskal Herriko etxeak*. *Maketa ebakigarriek*, gure herrietako hainbat etxe esanguratsu paperean erreproduzitzeko aukera ematen

digure, modu errazean guraizeak, kola eta erregela beserik erabili gabe. Erabiltzaileak, muntatu eta gero, erabaki dezake apaingarri moduan jarri.

Hauek dira hemendik aurrera, bisitatu eta ezagutzeaz gain, maketa bihurtu ahal izango ditugun Euskal Herriko hamar eraikin esanguratsu:

- 1- Hondarribiko Arma plaza
- 2- Pasai Donibaneko arrantza etxe bat
- 3- Hondarribiko Gipuzkoako plaza
- 4- Hendaiako Jasminen karrikako etxe bat
- 5- Zumarragako Legazpi dorretxea
- 6- Donibane Lohizuneko etxe bat
- 7- Mundakako Santa Katalina baseliza
- 8- Gasteizko Andra Maria Zuriaren plaza
- 9- Donamariako Jauregi dorretxea
- 10- Zuberoako Larraineko frontoia

Jone Lizarralde oiartzuarra da proiektu honen sortzailea. Maketas proposatzeaz gain, egileak argibide-orri bat

ere erantsi du, non eraikinak egiteko jarraibideak agertzen diren modu erraz eta argian, euskaran, gaztelaraz eta frantsesaz, argazkiz lagunduta. Horrezaz gain, erabiltzaileak argibide gehiago aurkituko ditu egilearen lotura honetan: <https://vimeo.com/channels/1183169> edota bere web orrian: [www.nonesh.com](http://www.nonesh.com).



**EUSKAL HERRIKO  
ETXEA**  
Jone Lizarralde  
ELKAR

**Una gran novela sobre los engaños de la memoria y la reconstrucción del pasado.**

«Una de las mejores narradoras españolas de los últimos años.»


GABI MARTÍNEZ, escritor

**DESTINO**

# DONOSTIA ~SKETCH~

MARRAZKETA MARATOIA • MARATÓN DE DIBUJO

Koaderno margo maratoi arrakastatsua antolatu zuen **elkar-ek** maiatzaren 21ean Donostiako kaian, **Olatu Talka** jaialdiaren baitan programatutako ekimenen artean. Bost leku mapan markatuta, horietatik hiru marraztu behar zituzten parte hartzaleek. Aulki era-mangarriak, bakoitzak bere gustuko margoak eta eguzkitako kremak lagun. Ehundaka haur, gazte eta heldu aritu ziren portua eta inguruak marrazten, antolatzaleek emandako koaderno eta errotulatzaleak eskutan. Batzuk familiarekin, bikotekidearekin besteak, lagun talde dezena ala bakarka nork bere margoak hartuta, Donostiako kaia sketch ilustrazio ederretan irudikatu zuten guztiak! Biba zuek!



¿QUÉ ESTÁS DISPUESTO A ACEPTAR PARA POSEER  
LO QUE NUNCA IMAGINASTE?

LA NOVELA QUE DARÁ QUE HABLAR EN 2017

[www.megustaleer.com](http://www.megustaleer.com)

Grijalbo

Penguin  
Random House  
Grupo Editorial



Disponible  
en ebook

# NORBERE BAITAKO KING KONG HORI



## VIRGINIE DESPENTESEN LIBURU MUGARRIA DA ESKAFANDRA BILDUMAREN BIGARREN ITZULPENA

**Virginie Despentesen *King Kong teoria* euskarara ekarri du Itziar Diez de Ultzurrunek eta Eskafandra bilduma feministan argitaratu, eta horrela bere lekua hartu du Angela Davisen *Emakumeak, arraza eta klasea klasikoaren ondoan*. *King Kong teoria* saiakerak, feminismoaren baitan, begirada erradikal eta kritiko bat dakin.**



**KING KONG  
TEORIA**  
Virginie Despentes  
JAKIN-ELKAR



tabu guztia erasotzen ditu bertan, dela bortxaketa, dela prostituzioa, dela pornografia; eta baita maskulinitatearen oinarrak leherrazti ere. Iza ere, Despentesek bere bipenetatik abiatuta osatu du saiakera hau, hau da, prostituzioan jardun eta bortxatua izan ondotik jabetu zenaren gaineko saiakera gordin eta sarkona dakar liburua.

Irene Arraratsek hitzaurrean dioen legez, «ez apaingarririk, ez samurbiderik, baizik xuxen akademikoa izan beharrik ez duen estilo kaletar zuzeneko bat, punken gerrikoak bezain eztenez betea» da Despentesen estiloa eta mamia. Itziar Diez de Ultzurrunek maisuki itzuli du haren saiakera biografikoa.

«XIX. mendean politikoki inposatzen diren generoerduen kontrako piztia da King Kong, generoen aurreko kaosa», Arraratzen hitzetan. Zer da baina King Kong? Nor da? Despentesek berak liburuan esaten duen legez, emakume gehienak Kate Moss baino gehiago gara King Kong, eta King Kong izate horretatik idazten du: «Itsusien baitatik idazten dut, itsusintzat, atsoentzat, marimutinentzat, frigidoentzat, larrutan gaizki jotakoentzat, larrutarako inork nahi ez dituenentzat, histerikoentzat, akastunentzat, neskato txintxaoren azoka handitik baztertutako emakume guztientzat. Eta hortik hasiko naiz den-dena argi egon dadin: ez dut barkamenik eskatzen ezertxogenatik, ez nator kexaka. Ez nuke neure lekuak aldatuko inoren lekuaren truke, Virginie Despentes izatea kontu interesgarriagoa iruditzen zaidalako beste ezer baino». Norbere baitako King Kong ezagutzeo aukera ematen digun liburu erradikala da honako hau.

King Kong teoria liburu garantzitsua da feminismoaren baitan. Despentesek 2006an eman zuen argitara, hain zuzen Estatu Kontseiluak *Baise-moi* filma zentsuratu zionetik sei urtera. Eta unean berebiziko arrakasta izan zuen. Ez alferrik, gizonkeriaren kontrako saiakera bortitz bat izateaz gainera, feminismo kontserbadorearen oinarrak durduzari zituen liburua da.

Virginie Despentes (Nancy, 1969) idiazle eta zinemagile punk eta feminista da. Bere sormen lanean tradizio-nalki gizonertzako baino ez diren rolak betetzen dituzten emakumeak ageri dira, eta horrekin geure gizarteko tabu eta menperakuntzak begien aurrean jartzea lortzen du. *King Kong teoria* da bere libururik ezagunena, eta baita feminismoaren baitan mugarriz izan direnetako bat. Feminismo kontserbadorearen

**LOREA AGIRRE**  
Jakineko zuzendaria

GILLES  
LEGARDINIER

EL  
MILAGRO  
ORIGINAL

Lo que van a vivir  
os desconcertará.

Lo que van a descubrir  
los fascinará.

Lo que tendrán que afrontar  
podría destruirlos...




El **thriller** más trepidante,  
lleno de aventuras y,  
sobre todo,  
más original  
de 2017

HarperCollins Ibérica  
[www.harpercollinsiberica.com](http://www.harpercollinsiberica.com)

# SERGIO PEREIRA

**Sergio Pereira (Pasaia, 1979) presenta su segunda novela, *El hijo del capitán*. Pasaia, el ballenero San Juan y las costas de Ternua son el marco de las aventuras de un variopinto grupo de personajes allá por el siglo XVI.**



**EL HIJO DEL CAPITÁN**  
Sergio Pereira  
TARTTALO



-¿Con qué se va a encontrar el lector en el *El hijo del capitán*?

Es una novela histórica y de aventuras ambientada en el siglo XVI entre Pasaia y Terranova, y que trata sobre la industria ballenera y naval del momento. Encontrará diversos datos y curiosas anécdotas históricas, así como una ambientación y un contexto histórico fiel. Con todo ello se entremezclan aventura e intriga.

**¿Cómo ha sido el trabajo de hacer navegar a la San Juan?**

No ha sido fácil. Aunque hoy en día comienzan a darse a conocer muchos datos sobre la industria ballenera y naval de la época, y en especial sobre la nao San Juan, aún



**“Aunque hoy en día comienzan a darse a conocer muchos datos sobre la industria ballenera y naval de la época, aún no son muchas las fuentes”**

no son muchas las fuentes, y las que había hasta hace poco no son del todo fiables. Se conocen abundantes datos sobre su construcción, sus propietarios, cómo se financiaban las empresas balleneras, pero de los sesenta marinos se sabe poco. Este ha sido mi reto.

**La obra recrea la vida a bordo del ballenero y también muestra una Pasaia bajo la tutela de Hondarribia y Donostia. ¿Ha sido complicada la labor de documentación?**

Más complicada aún que la referente a los balleneros de la época o a la propia San Juan. En momentos he lle-

gado a pensar que Pasaia ha estado borrada de la historia durante mucho tiempo. Los datos que las fuentes aportan son pocos y confusos, aparte de las indispensables obras de Zapirain e Irixola, no he conseguido encontrar mucho más.

**El buque reúne a una variopinta tripulación de personajes cuyas historias se entremezclan con propósitos a menudo muy diferentes.**

Creo que entre todos ellos forman un colorido mosaico. Joanes y la relación con su padre, el capitán Darieta, son el hilo conductor, pero también tienen una gran relevancia el mercenario conocido como *El leonés*; dos primos de Hondarribia que viven a salto de mata; un capellán, ex nuncio del Santo Oficio, dispuesto a aplicar mano dura; un miembro de la tribu *mi’kmaq* que lucha por sacar adelante a su clan...

**Joanes sigue teniendo 11 años. ¿Se ha planteado retomar en el futuro este tema?**

Sí, es una posibilidad. Primero habría que ver qué tal recibe el público esta primera. Si todo fuera bien incluso serían dos novelas más. El hilo conductor serían los progresos que la saga de los Darieta y el protagonista principal sería Joanes. Pero no les será fácil: comienza la guerra de Flandes y también con Inglaterra; una plaga de peste asola Pasaia; la Inquisición incrementa sus actividades; los conflictos con Donostia se intensifican; comienza la conquista del Canadá y el exterminio de los pueblos nativos; y, finalmente, el inevitable declive de los grandes grupos de ballenas por la caza masiva.

**JOSÉ MARÍ URIBARRI**  
Periodista


La entrevista completa:  
[http://bit.ly/hijo\\_capitan](http://bit.ly/hijo_capitan)



## EL MUNDO SE HA CARBONIZADO

«Si aún no tienes *Fuego*, lo necesitas». George R. R. Martin, autor de *Juego de tronos*

NOCTURNA  
EDICIONES





# 2017KO ELKAR SARIAK BANATU DIRA

**Ibilbideari elkar sariaren irabazlea Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa izan da aurten  
Jakin-ek Proiektuari elkar saria jaso du**

Joan den apirilaren 27an **elkar** sarien bigarren emate ekitaldia ospatu zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.

Sarien barruan bi sari eta beka bat ditugu: Ibilbideari **elkar** saria, Proiektuari **elkar** saria eta Joseba Jaka beka. Lehena urtero emango da eta beste biak txandaka, bi urtetik behin. Aurten, Proiektuari eta Ibilbideari saria eman ziren.

## PROIEKTUARI ELKAR SARIA

Beka emango ez den urteetan, kultur proiektuak laguntzeko sortu da Proiektuari saria. Bi urtez behin emango da, beraz. Aurtengo saria *Jakinek* martxan jarri nahi duen proiektu bati ematea erabaki du elkar Fundazioak: XX. eta XXI. mendeetako euskal pentsamenduaren transmisioa.

60ko hamarkadatik gaur egunera arte, Euskal Herriko pentsamenduaren eta kulturaren garapenean berebiziko garrantzia duten hainbat euskal autoreren lana berreskuratzea, transmititzea eta zabaltzea da proiektuaren helburua. Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi izan da aukeratutako lehenengo autorea, eta bere obra ezagutzen emateko sareko ataria, eta ikus-entzunezko eta liburu bilduma osatuko du *Jakinek* elkar-en laguntzari esker.



Eresibleko Jon Bagües, Projektuari **elkar** saria jasotzen

## IBILBIDEARI ELKAR SARIA

Urtero emango den sari hau Eresbil Musikaren Euskal artxiboa lortu du aurten. Urtean egindako lana da **elkar** Fundazioak saritu, aitortu eta eskertu nahi duena. 1974tik gaur arte etengabeko lanean aritza, euskal musika gorde eta lantza eta hori guztia euskal gizartearen esku jartza garrantzi handikoa da.

**elkar** Taldeko Zuzendaritzako eta Fundazioko Batzorde Eragileko kideek ekitaldira inguratu ziren hainbat gon-

bidatu hartu zituzten, besteak beste, Bingen Zupiria (Eusko Jaurlaritza, Kultura sailburua), Ana Ollo (Nafarroako Gobernua, Herritarreko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria), Estibaliz Alkorta (Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Sustapenerako zuzendaria), Paul Bilbao (Kontseilua, Idazkari nagusia) Iñaki Soto (Gara, zuzendaria), Martxelo Ota-mendi (Berria, zuzendaria) eta kultura eta euskararen munduko hainbat: Jose Luis Ansorena, Nerea Mujika... baita alderdi politikoetako hainbat ordezkari ere.

Ekitaldian Joxemari Sors **elkar** Fundazioko lehendakariak besteak beste, euskal kulturaren transmisió lana azpimarratu zuen: "Aurrerantzean kultur mundua bat eginda, gizarte eragileak eta instituzioak elkarlanean, kultur transmisió egoitratzeko gai izan beharko genuke; horrela etorkizuneko belaunaldiak jakintsuagoak izango dira. Bide berriak eraikitzea da bidea, baina ondo egiteko, hartuko diren erabakiak hartzerakoan, aurretik hartu direnen ezagutza izatea beharrezkoa da".



Iaz emandako Joseba Jaka beka Alaine Agirre idazleak eskuratu zuen, eta aurtengo udaberrian lan haren fruitua argitaratu du Elkar argitaletxeak: *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*, emozioak eta sentimenduak nagusi dituen eleberria. Egilearen esanetan, "neure amari zuzendutako maitasun-adierazpen bat da, eta horrek batera familia bateko historia, bertako kideen harreman sarearen bitartez". Aurreko bi nobelekin (*Odol mamituak eta X hil da*) bere bizitza, beldurrak, obsesiok kontatzen ibili da, eta hemendik aurrera beste era bateko idazkera landu nahiko lukeela esan digu.

### BI ALDIZ ERDITU ZINEN NITAZ, AMA

Alaine Agirre  
ELKAR

Elkarritzeta osorik:  
<http://bit.ly/bi-aldiz-erditu>



Informazio gehiago:  
[http://bit.ly/elkar\\_sariak](http://bit.ly/elkar_sariak)



Zaitasun bereziak dituzten haurrentzako  
IBBY erakundearen katalogorako hautatua

AURRELIK  
ONDOREN

TARTALO



**elkar  
jolasak**



-5%

Jolas guztietan **elkar** txartelarekin

En todos los Juegos con la tarjeta **elkar**

16



### DOBBLE BEACH

ASMODEE | +4 años

Un juego con más de 50 símbolos, 55 cartas, y únicamente un símbolo idéntico entre cada carta.

¿Serás capaz de descubrirlo?



### LUNAR LANDING

THINKFUN | +8 años

Juego de cartas en el que estarás en una misión en la luna, y si no consigues que el transbordador haga la reentrada en la nave nodriza, te encontrarás atrapado en el espacio para siempre.



### USAIN LOTERIA

SENTOSPHERE | +5 urte

Txikiiekin usainak asmatzeko eta gaztetxoekin loterian jolasteko aukera eskaintzen dizu jolas honek. 30 usain kutxa eta 5 loto kartoi aurkituko dituzu bertan.



### JUNGLE SPEED BEACH

ASMODEE | +7 urte

Karta-jolas honen helburua karta guztiak ahalik eta azkarren galtzea da. Hau lortzen duen lehen jokalaria Abulú buruzagia izendatua izango da.



### WOLKSWAGEN FURGONETA-3D PUZZLEA

RAVENSBURGER | +10 urte

3 dimentsiotako irudia duen puzzle ikusgarria.



Informazio gehiago: <http://bit.ly/jolasak>

**FARREZ  
LEHERTZEKO  
MODUKO BILDUMA**

**CAPITÁN CALZONCILLOS  
ABENTURAK**

**Munduan zehar  
70 MILIOI  
ale baino gehiago  
saldu ditu!!!**

**LITERATURASM.COM**

**sm**

# DAVID TRUEBA

**David Trueba (Madrid, 1969) cuenta muchas cosas en su nueva novela *Tierra de campos*. Narra la carrera de Dani Mosca, un músico forjado en el Madrid de los 80, que forma una familia en Japón y conoce la fama. Relata la historia de cómo ese mismo hombre viaja en un coche fúnebre recostado junto al cadáver de su padre, para devolverlo al pueblo que lo vio nacer. Pero, por encima de todo, habla sobre las contradicciones que habitan en el ser humano, y sobre lo mágica que es la aventura de vivir.**



**“Necesitamos sentir el suelo debajo de nosotros, pero la vida está en el aire”**

**“*Tierra de campos*” es un gran nombre para una gran novela. En alguna entrevista ha contado que lo primero ha sido el título, y después todo lo demás. ¿Tenía tan claro que iba a titular el libro así? ¿Por qué?**

No, eso es un malentendido. Lo que sucede es que no comienzo a redactar la novela, ninguna novela, sin tener antes el título. Pero cuando comienzo la redacción llevo meses, a veces años, construyendo la novela, estructurándola y pensando los personajes. Lo que no arranco es a escribir sin título, para mí es definitorio, es como saber definitivamente hacia donde viajo. Me encanta que te guste el título, porque cuando dejé leer la novela por primera vez todo el mundo me dijo que no era un título comercial, que sonaba a cosa antigua. Y eso me excitó, me dije a mí mismo, pues no lo cambio y a pelear por él.

**En la novela narra el transcurso de más de 40 años. Mucho tiempo, varias generaciones... ¿Cómo ha sido el proceso de escribirlo?**

Eso era precisamente lo que más complicaba la estructura, porque yo quería que fuera fluida, que no fuera farragosa, que contar 40 años de una vida no fuera algo ordenado y cronológico, sino que supusiera un reto narrativo, porque a veces en una sola frase viajas quince años atrás, veinte adelante y vuelves al día presente.

Además, así ponía en práctica directa lo que dice la novela al comenzar, el juego de la anticipación: decir lo que va a suceder, pero luego explicar el proceso para llegar hasta allí. Esto lo hago varias veces en la novela, como un símbolo de la vida en general.

**Habla de muchas cosas esenciales. De la vida, de la muerte. De la necesidad de pertenecer a un lugar, y también de la necesidad de no pertenecer a ninguno. De las raíces y el desapego.**

Esa es otra de las grandes contradicciones del ser humano. Necesitamos sentir el suelo debajo de nosotros, pero la vida está en el aire. Me encanta la gente que viaja al origen para tomar fuerza, para volar, no aquellos que convierten los orígenes en la esencia de su vida, en su diferencia, en su superioridad. De ahí que la novela hable de esos asuntos y el protagonista se pregunte si de verdad puede seguir fingiendo que su origen es el origen de su padre.

**TERESA SALA**  
Periodista

La entrevista completa:  
[http://bit.ly/tierra\\_campos](http://bit.ly/tierra_campos)



**TIERRA DE CAMPOS**  
David Trueba  
ANAGRAMA

**ATLAS DE CARRETERAS  
Y MAPAS NACIONALES  
¡INDISPENSABLES EN TUS VIAJES!**



 **MICHELIN**  
